
GURE DEIA

"Euskerazaleak"en batzordeak dei egiten dautsue, alkartearen bazkide guztioi, gure erakundearen Zidarreko Ezteguan tartekoak izan zaitezten.

Sortu zanetik ona, "Euskerazaleak" ez dau lan makala egin. Millaka dira epe orretan euskera ikasi dabenak, beste inon ori egiteko aukerarik ez egoanean, orretarako ikasbide ta irakurgaiak argitaratuz. Euskereari eusteko, gure "ZER" illerokoak guztitariko gaiak eskiñi dautsuez etenbarik, euskera errikoi ta errazaz, bide erakutsiz zelako euskerea erabilli bear dogun, ulerkoia ta atsegiña izan daiten.

Orain 25 urte, eskukada euskaltzale batek sortu eban gure erakundea, euskerarekiko girorik ez egoanean. Bai, gitxi batzuk sortu eben gure erakundea, amaika oztopo ta arduraezak garaiturik, eta ordutik ona, Bilbao'ko ta onen inguruetakoko lagun asko euskaldun biurtu dira, izan be, gur aberriari eskiñi dagikeon aalegiñik benetakoena.

Ori dala-ta, guztioi dei egiten dautsuegu ospakizun orretan tartekoak izan zaitezten Eskolapioen ikastetxean, il onetako 15'tik 19'rarte izango dan "Euskal Astea"n, eta 20'ean (Larunbatean) San Anton'en ordu batetan ospatuko dan mezatara, eta jarraian lagun-arteko bazkarira.

Edozein batzordek aurrera ekiteko, bazkideen laguntza ta adorea bear dauz, eta geuk bene-benetan zuen laguntza ori bear dogu, euskerearekiko dogun eginkizuna aalik ondoen bete aal izan dagigun; gure bizkaieraa ain zapuztua danean batu gaitezen inoizkorik kemen-tsuen, eta zin egin dagigun aurrera joateko gure arbasoen izkuntzaren ald.e

Biotz-biotzez eta aurretiaz gure eskerrik andiena.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

EUSKERAZALEAK

(25 URTE)

OSPAKIZUNA: BAGILLAREN 20'an

BERBALDIAK: 15'etik 19'ra ESKOLAPIOETAN (BILBAO'n)

(EGIN IRRINTZI ETA AURRERA)